

## **GORILA BAT** **Zenbatzeko liburua**

Testua eta irudiak: **ANTHONY BROWNE**

Itzulpena: **MANU LÓPEZ GASENI**

Azal gogorrean koadernatua. 26 x 30 cm. 32 or. 16,50 €.

**Gorila bat. Zenbatzeko liburua** (euskaraz)

ISBN 978-84-7681-713-1. Kalandraka-Pamiela.

**Un gorila. Un libro para aprender a contar** (galegoz)

ISBN 978-84-8464-710-2. Tras os montes.

**Un Goril·la. Un llibre per aprendre a comptar** (katalanez)

ISBN 978-84-15170-19-8. Kalandraka-Hipòtesi.

**Um Gorila. Um livro para aprender a contar** (portugesez)

ISBN 978-989-8205-78-0. Livros para sonhar.

**Un Gorilla. Un libro per contare** (italieraz)

ISBN 978-88-95933-41-2. Libri per sognare.

*Gorila bat, bi orangutan, hiru txinpantze... eta zu.*

*Ospatu primate ederren mundua album bikain honetan zenbatzen dituzun bitartean.*

Batetik hamarrera zenbatuz, aurre-irakurle eta lehen irakurleentzako album hau zenbakietara eta primate-animalietara hurbiltzeko oso baliabide egokia da.


Anthony Browne-k zenbaki bakoitzari dagozkion beste animalia irudikatzen ditu. Marrazkiak errealistikak dira eta xehetasun handiz burututa daude; nabarmenzekoak dira kolorearen erabilera eta tximinoen adierazkortasuna –adeitasuna, gozotasuna, bihurrikeria, herabetasuna...-. Hain aurpegieta, pertsonei dagozkien keinu eta jarrerak antzematen dira.

Hori dela eta, liburuak bigarren irakurketa ere badauka: beste animalien antzera, primateek sentimendua dituzte. Eta, eboluzioaren aldetik, gizakiengandik hurbilen dauden ahaideak izan arren, espezie batzuen biziraupena larriki mehatxatuta dago. Egileak zuzenean konprometitzen da mezu horren zabalkunde-lanean: bere autoerretruaren ondoren, mundu osoko arraza eta kulturen aniztasuna islatzen duen ‘argazki’ antropologikoa irudikatu du, edozein irakurlek bere burua identifikatu ahal izateko modukoia.

*“Tximinoak pertsonaia gisa aukeratzetik gehien gustatzen zaidana haien unibertsaltasuna da (...) Tximinoen unibertsaltasunak ume guztiak, edozein adin, garai edo arrazatakoak direla, halekin identifikatu ahal izatea bermatzen du”.*

[ Anthony Browne: “Jugar el juego de las formas”, FCE, 2011 ]

**ANTHONY BROWNE**



■ **Galak:** zenbakiak 1etik 10era; primateak.

■ **Gomendatutako adina:** 3 urtetik aurrera.

■ **Alderdi azpimarragarrilak:** zenbatzen ikastea; zenbakiak; ekologia; “Kezkamuxelak”, “Urdaburutarrak” (Kalandraka) eta “Nola sentitzen zara?” (Kalandraka-Pamiela) obren egile berarena.

### **Anthony Browne**

(Sheffield, Inglaterra, 1946)

Leeds College of Art delakoan graduaturik, diseinu grafikoan espezializatu zen. Giza irudia irudikatzeko lehia perfektionista haren lehen lanetako eraginetik dator, Manchesterreko erietxe bateko medikuntza gaietako marrazkigile aritu baitzen. Haurrentzako ilustrazioetarako joera geroagoko aldi batean sortu zitzaison, zorion txartelak disenatzen zituenekoia. Browneren estiloan atzeman daiteke margolari surrealisteikiko, eszena onirikoekiko eta elementu bitxiekiko interesa. Bere ibilbidean jaso dituen sari aipagarrienak dira Kate Greenaway Domina, Kurt Maschler Saria eta Children’s Laureate 2009 Domina. Hala ere, guztien gainetik, Hans Christian Andersen Saria dago, bere obra osoagatik 2000. urtean eman baitzitzen. 1956an ematen hasi zenetik, sari garrantzitsu hori jaso duen lehen britaniarra da. Itzal handieneko egile ingelesetariko bat da, batez ere irakurtzeko, begiratzeko eta lengoaia plastikoarekin erlazionatzeko bide berriak zabaltzeko ahaleginagatik. Horren adibide bikainak dira “Urdaburutarrak”, “Kezkamuxelak” eta “Nola sentitzen zara?”. Adituen esanetan, Browneren lanak kultur eta arte-erreferentiez betetako unibertsoa sortu du, edozein adinetako irakurleak testua osatzeko eta interpretatzeko duen adimena probatzen duten ikus-arrasto eta giltzarri ugari azaltzen baititu.



www.**kalandraka**.com  
comunicacion@kalandraka.com

www.**Pamiela**.etxea.com  
soltxate@pamiela.com